

ESKU IKUSEZINAREN ITZAL LUZEA: EKONOMIALARIEN ERRETORIKAREN KRITIKA

Joseba Permach Martin
UEU eta EHU/UPV, 134 or.
Bilbo, 2018

Azken hamarkadetan ekonomialarien erretorikaren garrantzia nabarmendu izan da, batez ere, Deirdre (aurretik Donald zena) McCloskeyren eskutik (Klamer, McCloskey, & Solow, 1988; McCloskey, 1990; 1998). Erdal eztabaida teoriko asko ez dira gugana heltzen eta, kasu askotan, horren onuraz ziur nago. Baina, kasu honetan, zientzia ekonomiko ofizialaren erretorikari buruzko nondik norakoak gurera ekartzeak zinez merezi zuela oso ongi argudiatu digu Joseba Permachekek.



1. irudia. *Esku ikusezinaren itzal luzea: Ekonomialarien erretorikaren kritika* argitalpenaren azala.

1

McCloskey eta bere eskolako enfasia, ekonomia-teorian ez ezik zientziaren filosofian ere, aire fresko bat ekarri zuen. Lege, eredu eta teoria hotzetan oinarrituriko zientzia *hitz egiteko modu* bat besterik ez zela proposatu zuten. Horrek eskola neoklasikoak dituen jokabide zientifikoa eta diskurtso soziala erabat biluzten ditu, eskola horrek bere ideiak eredu matematikoetan gorpuzten dituelako, eta matematika horiek bere egiaren *froga* direla sinetsarazi nahi duelako.

Newtonen *egiak* errealitatearen esparru zehatz baterako besterik ez duela balio frogatu zigun Einsteinek, eta fisiko kuantikoez, Einsteinen formulak ere unibertsalak ez zirela. Hori horrela bada Fisikan, nolatan ez ba askoz sistema irekiago eta aldagai anitzagoak dituen ekonomian? Gizakiaren psikologiaren eta soziologiaren kaleidoskopioen eraginak ditu, bukaezinak diren erlazioek ugaritua. Hala ere, soiltasunaren zaldun dira ekonomialari neoklasikoak. Balizko oso murriztaileak ezarri eta gero, eredu matematiko «politik» eratzen dituzte. «Honek hori dakar» ez bairik gabe diotenak. «Zientifikotasunari» darraizkionak eta, beraz, beste ikuspegi batetik begiratu ezin direnak.

Eredu «politik» dira, bai, baina isla enpirikoan hutsalak. Errealitatearen aldagai garrantzitsuen artean, indar gutxiagoz diharduten aldagai ahulagoak nabarmenduz asmatuak dira. Eta, aldagai garrantzitsuago horiek ahaztuz, Huxleyren (1932) *Bai mundu berria* irudikatzen —eta inposatzen— digute. Ez dira gezur hutsak, ez. Hor nonbaiten omen daude. Munduan laino zabal baina lauso bat bide dira, kapitalismoan emeki hedaturik. Baina laino lauso horrek harkaitzez, mendiz eta haranez eraikitako ekonomia eta gizartea determinatzen duela esatea falazia mereologiko itzela da. Osotasun baten zati ahul bat osotasun irmo horrekin identifikatzea beti izan da estrategia —eta engainu— erretoriko ona.

Merkatuek Smithek eta Hayesek esan bezala nonbaiten eta nolabait funtzionatzen duten, bada, batek daki; onar genezake. Baina horrek merkatuen eta ekonomien osotasuna deskribatzen duela... Barka biezadate, baina inolaz ere ez. Pertsonari ustiaketa anitzak, merkatu «akatsak», erabaki ekonomikoetan aldagai sozial eta etikoen pisua, arau informalak eta instituzioak, jokabidean irrazionaltasunak, entxufekeriak... politika neoliberalen eta ekonomia neoklasikoen balizko bat ere ez da gelditu errealitateak ezeztu gabe, literatura akademikoak behin eta berriz esplizitatu bezala, bai euskaraz (Abajo Gonzalez, 1999; Erauskin, Zurbano, & Martínez, 2012; Heras, 2003; Inza, 2012) eta bai erdara desberdinez, espainolez (Etxezarreta, 2004; García & Ruíz, 2016) eta ingelesez (Arnsperger & Varoufakis, 2006; Boland, 2005; Keizer, 2015; Repapis & Latsis, 2015; Thompson, 1997; Vertigan, 2017) kasu.

Balizkoen errealismorik ezaren aldeko ohiko argudioak zera dio: ez du ardurarik teoria bat eraikitzeko erabiltzen diren balizkoak irrealak izateak; haren ondorioak (eta, batez ere, ondorioetatik ateratako igarpenak) gerora betetzen badira, orduan ikusiko delako teoria hori baliagarria zenetz (Friedman, 1953). Horrek eztabaida beroa piztu zuen, oraindik ere sugarretan dagoena (Ivarola, 2018; Mäki, 2016). Era guztietako argudioak eman dira eztabaidan, baina kaleko logika sinplea erabiliz, Mulá Nasrudín antiheroi sufiaren eran, zera esan dezakegu: balizkoen eremuan egia garrantzitsua ez bada, zertarako argia piztu hor zerbaiten bila, hots, zertarako energiak galdu hor?

Argi dago zientzian errealitatearen deskribapena dela lehenetsua, eta ez etorkizunaren iragarpena, errealismo instrumentalista bitxi horrek aurkakoa esan arren. Eta argi dago ere teoria neoklasikoak guztiz irrealak direla, «fosil kontzeptualak» (Jones, 2018). Ekonomia orokorrean hartuta ere, lehen ideia neoklasikoa kapitalismoaren eta bere merkatuen oreka «naturala» da. Eta non antzeman dezakegu, zikloz, akatsez eta bidegabekeriak nonahi jota dagoen merkatu-sistema honetan?

Hala ere, Mendebaldeko gizarte modernoan dugun «zientzismo»ari esker, «gezur» horiek onartzen ditugu. Ala, era osatuan hitz egiteko, «egia osoa»ren moztararekin agerrarazten dizkiguten «egia erdi» edo «egia hamarren» horiek onartzen ditugu. Nola? Ekonomialari goraiatuek idazten dituzte liburu mardulak beraien gain. Batzuek Nobel sariak jasotzen dituzte. Egunkariak betetzen dira horiek onartzen eta hedatzen dituzten artikuluekin. Irrati- eta telebista-tertuliak mukuru dira, egia moztarotatu horien errepikaketa akritikoan diharduten etorri handiko hizlari erakargarrieekin. Oso jakitun jantzia izan behar bestelako kezka dituen kaleko jendeak, buru gainean irmo eta trinko, baina abisurik gabe, duen armiarma-sare honen nondik norakoetatik salbu izateko.

Bada, hain zuzen, moztarotak eta armiarma-sareak biluztu ditzagun plazaratu zaigu Joseba Permach.

2

Hiru azterketa-xafla nagusi aurkituko dituzu lanean. Erretorikaren inguruko zientziaren filosofia laburbiltzen du, ezer baino lehen, hitzaurrea eta gero (2. atalean). Segidako zerrenda jorratzen du. Positibismoaren porrota, Vienako zirkuluaren eskutik. «Bira linguistikoa», Wittgensteinek hasia eta «Oxfordeko filosofoek» jarraitua. Errepresentazioaren garrantzia zientziaren filosofia berrian. Erretorikari garrantzia errepresentazioaren barnean, McCloskey eta ingurukoei esker. «Metaforei» emandako garrantzia, erretorika horren barnean, Lakoffen lanetan. Azkenik, zientzia ekonomiko ofizialaren diskurtsoak, erretorika eta metaforak ildo honetan txertatzea, geroko azterketan sakontzeko. Atal honi nahiko txukuna deritzot. Akaso falta da ildo horren bilakaera horrela egin izanaren azalpen bat, guztia hasi baitzen Vienako zirkuluak zuen materialismoa frogatu nahi eta ezinean, eta hortik domino teorikoa. Baina erabateko zentzua du, eta ildoaren katebegiak ondo iltzaturik daude, adibidez, Emmánuel Lizcano erabilita.

Bigarren azterketa-xaflan neoliberalismoaren inguruko defendatzaileak eta kritikak biltzen dira, zientzia ekonomiko ofizialaren diskurtsoak neoliberalismoa arrazoitzen eta «saltzen» baitigu. Lehenik, ideia liberalen kritiko historikoak biltzen dira (3. atalean). Bilduriko autoreak, hurrenez hurren, honakoak dira: Karl Marx eta Friedrich Engels, Gilberth Keith Chesterton, John Maynard Keynes, Karl Polanyi eta Pierre Rosanvallon. Eta, neoliberalismo modernoan jada sarturik, David Harvey, Manfred Max-Neef, José Manuel Naredo eta Michael Foucault piska bat. Ezin ziren kritiko guztiak sartu, baina aukeraketa ona delakoan nago, batez ere alde historikoan (aldiz, egungo pentsamendu ekonomikoari dagokionez, neoliberalismoaren aurka nabarmendu diren eta argudio gehiago ematen dituzten beste autore eta area ekonomiko batzuk aukera zitezkeelakoan nago).

Liberalismoaren autore nagusiak jorratzen ditu hori eta gero (3. eta 4. atalak). Adam Smith eta bere esku ikusezinaren metaforak korrante horren eta haren erretorika nagusiaren hasiera ekarri zuelako (3. atala). Friedrich Hayek eta Milton Friedman, beren naturaren eta bestelako metaforekin, eta ideia ekonomikoen historian izandako pisuarekin, liberalismoaren jarraipena ekarri zutelako teoria mailan (4. atala).

Hirugarren eta azken azterketa-xaflan enpirikotasunean gehien sartzen diren atalak bilduko nituzke. Lanaren hasieran, azken urteetako bizitzan gaiak izan duen garrantzia argudiatzen da (Hitzaurrean). Eta, lanaren amaieran, azterketa teorikoen lanabesak eman eta gero, azken krisian diskurtso neoliberalak izan duen paperan sakontzen da; hots, egungo «aditu» ekonomikoen diskurtsoa (6. atalean). Azken xafla horretan lana borobiltzen da. Egungo sasi-aditu ekonomikoen diskurtsoa bere erro historikoen erretorikan biluzten da, eta haien trikimailuak agerrarazten. Horri ginga jarritz, ondorioetan dena biltzen da, azken ondorioak baino lehen liburuaren berrikustea eginez.

3

Bai kaleko irakurleentzat, *fake news*-ak baino haratago begirada kritiko bat bilatzen dutenentzat, eta bai profesional eta teorikoentzat, heziketa teorikoa janztearen interesa dutenentzat, lan oso estimagarri baten aurrean gaudela deritzot.

Azkenen ikuspegitik, zenbait ñabardura. Bat. Autore liberal eta neoliberal batzuei buruzko erretorika *aplikatuko* lana da, ez erretorika-irudien berrikuspen bat zientzia ekonomikoan. Irudi eta adibide erretoriko asko aurkituko dira, batez ere natura hitzen erabilera, eta metaforen sailkapenen bat, hala nola Lizcanorena edo Lakoffena, erabiliak edo aipatuak dira. Baina horrek ez ditu agortzen ekonomia-zientziako irudi anitzak. Eremu horren bila den irakurleak beste lekuetan bilatu beharko du; hona sintesi bat: irudi materialistak (makina, sistema termodinamikoa, ordenagailua, izaki konduktuala...); bitalistak (sistema autopoietikoa, ekosistema, izaki ebolutiboa...); humanistak (izaki soziala, gizaki etikoa, pertsonalismoa...); sormenekoak (sistema konplexu berez antolatua, suntsipen sortzailea, sormen-izakia...); eta perenneak (holograma, izaki transpersonala, buda-izaera...) (Renteria-Urriarte, 2015). Batzuk garatzen ditu, luze-luzean, René Passetek (2011), batez ere, makina, sistema termodinamikoa eta bioekonomia.

Bi. Gisa honetako erretorika-lan batean ohi den bezala, helburua da trikimailu metaforikoak biluztea, baina ez hainbeste metaforen atzean dauden argudioak ezeztatzea. Interes hori duen irakurleak literatura zabala du horretan (goian hiru hizkuntzetan eman diren adibideak hasiera bat izan daitezke).

Hiru. Idazle zehatz batzuk nabarmentzea eta haien gainean lana eraikitzeak badu arrisku handi bat: autoreak barrerorri edo «txanpiñoi» gisa agerraraztea, garaiko agertoki sozialetik eta historikotik at. Interes hori duen irakurleari ez nioke txintik ere esango, ezin hobeto beteak daudelako argudio-ildoaren katebegi hauek. Ezinbestekoak diren datuak emanez, baina gehiegi luzatu gabe. Maisuki lurreratzen gaitu dena ondo ulertzeko kasuan kasuko ingurune sozio-historikoan.

Eta balorazio sorta hau amaitzeko, xehetasunak. Lehena. Liberalismoari kritikak liberalismoa bera aurkeztu baino lehen azaleratzeak bitxia eman dezake. Ziur asko, neoliberalismoa eta liberalismoa atal berean sartzeko prezioa izan da. Bigarrena. Irizpide historikotik abiatzen denez, aipaturiko lanen lehen argitalpenaren data eta autoreen jaiotza eta heriotzak eskertzeoak lirateke, irakurlearen buruak gizaldietan ondo koka ditzan. Hirugarrena. Autore nagusien lan erraldoietan oinarritzeaz gain,

literatura zientifikoan ematen diren eztabaida teorikoak ere eskertuko lirateke, *journal* edo «aldizkari zientifiko» direlakoetan emandako ñabardura eta iruzkinekin, sakondu nahi duen irakurleari lana errazteko. Ziurrenik, liburua irakurleria zabal bati eskuragarri egiteko saihestu da hori. Eta azkena. Zenbait pasartetan gozagarriak dira egindako interpretazio finak; segidakoa aukera dut adibide gisa. Hayek eta Myrdali emandako Nobel Sari partekatua, eta gerora Friedmani emandako Nobel Sari ez partekatua alderatzen ditu autoreak, eta horrek akademian ematen ari zen bilakaera isla zezakeela susmatu.

4

Oro har, lan txukuna da oso. Argudioen aldeak mezuaren ildoan ondo kolaturik daude. Ez da luzeegia, kaleko irakurleak ez nekatzekoa; eta laburregia ere ez, akademiako teorikoak asetzeko nahikoa (117 orrialde).

Idea bat azpimarratzen du Joseba Permachek, eduki orokorrari bagagozkio. Izatez, liberalismoa zenbaiten *utopia* dela. Batzuek lortu nahi duten egoera ideal bat da, benetan existitzen ez dena. Eta ekonomialari ortodoxoen diskurtso neoklasikoak utopia hori errealitatea izan dadin bilatzen du. Nola? Benetako errealitatearen erretorika estaltzaile baten bidez. Autoreak azken krisi ekonomikoaren kasua zehazten du. Finantza «lurrrikara», merkatu «estresatuak», bankuak «erreskatatu» dirua «injektatuz», eta «estimuluak» mantendu; hondamendi itzel eta gaixotasun larrietan bezala. Zer estaltzen dute, hasieran beldurtzen gaituzten, eta gero gure zorretatik dirua hartzea arrazoitzen duten metafora hauek? Langileei eta txiroei inoiz egin zaien lapurretarik handiena. Horretan bai aldatu delako erretorika: lehen estatuaren esku-hartzea beti pikotan bazegoen, orain onartua dago bankuak eta ekonomia «erreskatatzeko».

Ideologia neoliberal boteredunen nagusitasunaren justifikazio teorikoa dela argi dago, askok oso ondo argudiatu duten bezala (e. g., Ahumada, 2002), eta erretorika mailan hori nola egiten eta nola gizarteratzen den oso ongi azaltzen du liburu honek. Zentzu horretan, sistema kapitalistaren biolentziaren azken urrats gisa koka daitezke ekonomialari neoklasikoak: lehenengo, biolentzia fisikoaren monopolioa ematen zaien armadak eta poliziak; gero, biolentzia fisiko horretara garamatzaten epaileak; atzean, epaileek aplikatzen dituzten legeak erabakitzen dituzten politikoak; eta, azkenik, establishment hori arrazoitzen duten teorikoak eta kazetariak. Baina azken horien metaforetan burua galdua dugun bitartean, atzean ditugu, benetako erabakimenarekin, munduko ekonomiaren pastela eskuetan duten *Korporatokrazia*-ko eliteak (Perkins, 2004;), 6.000-7.000 pertsonetan zehaztu daitekeena (Compston, 2013).

5

Joseba Permachen lanak alde askotarako gogoetak iradoki diezazkiguke. Bat aipatuko dut, teoria hutsaren mailan. Ustez *zenbakietan* oinarritzen omen den zientzia ekonomiko ofizialak aberastasunaren metaketaren ideologia egiten duela dio, eta *hitzekin* hain zuzen, «esku ikusezina», «indar inpersonala», «urrezko oiloa»

eta «erreskate» gisako metaforekin. Baina zientzia fisikoek duten ideologia-rola ezezaguna zaigu normalean. Adibidez, «ura konprima daiteke?» galderak jakin-min intelektual neutrala ematen du, baina horrelako galderak egin badira, eta horien erantzun zientifikoak aurkitu badira, gizarte burgesaren ekoizpen-interesengatik izan da (Abreu, Cabrera, Iglesias, & Izquierdo, 1995, p. 37; Serrano, 2019). Jakintza unibertsal eta objektibo gisa hartzen dugun «zientzia», horrelako kasu anitzek erakusten dutenez, guk mendebaldarrok dugun materialismoaren interes-fokuratzeko bat besterik ez da.

Baina arestian aipatu dudan horretara itzuliko naiz amaitzeko, zenbait eztabaida teoriko euskal herriratzearen egokitasunera. Joseba Permachen lanak zein hurrengo pausu iradoki diezaguke? Nola igaroarazi lan honen zerizana Euskal Herriaren eztabaida sozialean garrantzitsua izan daitekeen horretara?

Zehaztuz: zer lelo eta metafora, zer erretorika eta diskurtso, eta zer mundu-ikuskerara ditugu aproposak, euskal gizartean eta une honetan, etorkizunari begira? Izan ere, abertzaletasunak aldi historiko bakoitzean mundu mailan nagusi ziren eredu ideologikoak erantsi dizkio errebindikazio nazionalari: tradizionalismoa, liberalismo oligarkikoa, demokrazia kristauaren mezu soziala, sozialdemokrazia, marxismoa... (Zubiaga, 2013). Eta, azken fasean, demokraziaren diskurtsoaren bilakaera etengabea da euskal gizartean (Zabalo & Odriozola, 2017), mugimendu sozialak ere horren parte direlarik (Ibarra, Zubiaga, & Bárcena, 1995), eta diskurtsoaren bilakaera hau Europako ezkerreko eta mugimendu sozial modernoek duten joerari dagokiolarik (Della Porta & Diani, 2011; Mobilizing4Democracy, 2017).

Idazleak izan duen ibilbide politikoa izan eta gero, eztabaida horretan entzuteko interesgarria litzaiguke. Gure partetik, ekarpen apala proposatu dugu (Renteria-Uriarte & Las Heras, 2019). Balizko hauetan datza: mugimendu sozialen ekarpenak baloratzeko era aproposa da aldaketa sistemikoen aurrean kokatzea; eta autore askoren ustez, *Komunal Digitalen Ekonomia* izango da (milurteko honen erditik ekoizpena, trukeak eta jabegoa iraul ditzakeen jokamolde berria). Beraz, *Partekatze Ekonomia* honen aurrean nola jokatzeko irizpideak dituzten mugimendu sozialak izango dira etorkizunean proiektio gehien dutenak. Saihetsezineko geroa izango badugu pantaila baten aurrean egotea, benetako partekatzeak (guztion mesederako) edo sasi-partekatzeak (Big platform eta gu botere gabeen ustiaketa berri baterako) akzioak erabakitzen, balioak eta iradokizunak emango dizkiguten mugimendu sozialak behar ditugu. Eta Euskal Herrian badugu nondik irizpideak hartu, gure hizkuntzak eta mundu-ikuskeraren *Euskal Senak* zehazki hori egiten duelako, hots, *Euskal Komunalismoa* dei dezakegun sistema ekonomikoa islatu eta bultzatu (*Auzolanak*, *Batzarreak*, *Komunalak* eta *Zuzenbide Piriniotarra*). Eta honek bete-betean arrazoitzen du aipaturiko euskal diskurtso sozial modernoak, benetako demokrazia zuzen baten ereduak delako.

Dela honen ildotik, dela beste zerbaiten ildotik, zein izan daiteke lelo, irudi eta erretorika berria? Erroka dugu aurrean. Nahiko argi dugu bere burujabetzari begira eten batean gaudela, eta zuzentza sozialari begira, 2008ko krisiaren aitzakiaz politikariek bankarientzat egindako lapurretek eta enpresari handientzat egindako erreformek akiturik. Koiuntura honetan, gehiago begiratzen dugu kanpora

(Kataluniara) gure baliabide historikoei baino. Zer egin? Neoliberalak bezala «fossil kontzeptualak» erabiltzen jarraituko dugu, ala Euskal Herriko diskurtsoa eta erretorikak benetan mamitzen eta janzten asmatuko dugu?

Aipu-iturriak

- Abajo Gonzalez, A. d. (1999): *Neoliberalismoa, edo egungo gizartea irudikatzeke zenbait zertzelada*, UEU, Bilbo.
- Abreu, J. M., Cabrera, E., Iglesias, P. L., & Izquierdo, J. (1995): «El golpe de ariete en tuberías de impulsión. comentarios a las expresiones de mendiluce», *Ingeniería Del Agua*, 2(2), 37-52.
- Ahumada, C. (2002): «La ideología neoliberal: Una justificación teórica del predominio de los poderosos», *Papel Político*, 14, 37-58.
- Arnsperger, C. & Varoufakis, Y. (2006): «What is neoclassical economics? the three axioms responsible for its theoretical oeuvre, practical irrelevance and, thus, discursive power», *Panoeconomicus*, 53(1), 5-18.
- Boland, L. (2005): *The principles of economics: Some lies my teacher told me*, Routledge, Londres.
- Compston, H. (2013): «The network of global corporate control: Implications for public policy», *Business and Politics*, 15(3), 357-379.
- Della Porta, D. & Diani, M. (2011): *Social movements: An introduction*, Blackwell, Malden, Mass.
- Erauskin, A.; Zurbano, M. & Martínez, E. (2012): «Garapenaren ekonomiari loturiko pentsamendu ekonomikoen bilakaeraren hurbilketa bat», *Enpresen Zuzendaritza Eta Administrazio Aldizkaria*, 19, 153-176.
- Etxezarreta, M. (2004): *Crítica a la economía ortodoxa*, Univ. Autònoma de Barcelona, Bellaterra.
- Friedman, M. (1953): «The methodology of positive economics», *Essays in positive economics*, University of Chicago Press, Chicago, 3-43.
- García, F. & Ruiz, A. (2016): *Hacia una economía más justa: Una introducción a la economía crítica*, Economistas sin Fronteras, Madril.
- Heras, I. (2003): *Txanponaren bi aldeak: Ekonomiaren mito eta elezaharrak*, Alberdania, Irun.
- Huxley, A. (2002): *Bai mundu berria*, Elkar, Donostia.
- Ibarra, P.; Zubiaga, M. & Bárcena, I. (1995): «Mugimendu sozialak eta demokrazia euskal herrian: Intsumisioa eta ekologismoa», *Uztaro*, 14, 99-125.
- Inza, A. (2012): «Hegemonia neoliberal eta krisi ekonomikoa», *Riev*, 57(1), 40-60.
- Ivarola, L. (2018): «A plea for realistic assumptions in economic modelling», *Theoria: An International Journal for Theory, History and Foundations of Science*, 33(3), 417-433.
- Jones, M. (2018): «Conceptual fossils: Why do we keep teaching irrelevant ideas in first year economics?», *Post-crash economics*, Springer, 127-148.
- Keizer, P. (2015): *Multidisciplinary economics: A methodological account*, Oxford University Press, Oxford.
- Klamer, A.; McCloskey, D.N. & Solow, R.M. (1988): *The consequences of economic rhetoric*, Cambridge University Press, New York.
- Mäki, U. (2016): «Scientific realism and ontology», *The New Palgrave Dictionary of Economics*, 1-11.
- McCloskey, D.N. (1990): *If you're so smart: The narrative of economic expertise*, University of Chicago Press, Chicago.
- , (1998): *The rhetoric of economics*, Univ of Wisconsin Press, Wisconsin.

- Mobilizing4Democracy (2017): *Mobilizing for democracy: Democratization processes and the mobilization of civil society (results in brief)*, Cordis (EU Research results).
- Passet, R. (2011): *Les grandes représentations du monde et de l'économie à travers l'histoire: De l'univers magique au tourbillon créateur*, Éditions Les Liens qui libèrent.
- Perkins, J. (2004): *Confessions of an economic hit man*, CA: Berrett-Koehler, San Frantzisko.
- , (2009): *Confesiones de un gángster económico*, Urano, Bartzelona.
- Permach, J. (2018): *Esku ikusezinaren itzal luzea: Ekonomialarien erretorikaren kritika*, EHU eta UEU, Bilbo.
- Renteria-Uriarte, X. (2015): *Ciencia holográfica. una invitación a la ciencia tradicional desde la felicidad, el amor y la filosofía perenne*, Unpublished manuscript.
- Renteria-Uriarte, X. & Las Heras, J. (2019): *Supporting sharing societies from sociocultural values. Basque auzolan, batzarreak, and komunalak*.
- Repapis, C. & Latsis, J. (2015): «From neoclassical theory to mainstream modelling: Fifty years of moral hazard in perspective», *What is neoclassical economics?*, Routledge, Londres, 95-115.
- Serrano, P. (2019): *Respuesta a ¿se puede comprimir el agua?*, Quora.
- Thompson, H. (1997): «Ignorance and ideological hegemony: A critique of neoclassical economics», *Journal of Interdisciplinary Economics*, 8(4), 291-305.
- Vertigan, S. (2017): «Econocracy: The perils of leaving economics to the experts», *Teaching Business & Economics*, 21(1), 30-31.
- Zabalo, J. & Odriozola, O. (2017): «The importance of historical context: A new discourse on the nation in basque nationalism?», *Nationalism and Ethnic Politics*, 23(2), 134-154.
- Zubiaga, M. (2013): *Soberanismoa eta desobedientzia: Paradigma politiko berria*.

Xabier Renteria-Uriarte